

RASFF TXOSTENA

ALERTAK ETA JAKINARAZPENAK

PENTSUAK

2023. URTEKO TXOSTENA


Jakinarazpenen kategorizazioa
Identifikatutako arriskuen jatorria
Tartean dauden produktu-motak
Tartean dauden lehengaiak

JAKINARAZPENEN KATEGORIZAZIOA


2023an, lauhilekoetan kontsultatutako datuen arabera, animalien elikagaiei buruzko 296 jakinarazpen egin dira. Horietatik **48 (% 16) alertak izan dira, 186 (% 63) informazio-jakinarazpenak eta 62 (% 21) mugan egin diren ukapenak.**



Hona hemen urtean zehar RASFF bitartez jasotako jakinarazpenen kopuruan izandako joera:




Jakinarazpenetako produktuen jatorrizko herrialdeei dagokienez, **hirugarren herrialdeak % 39 izan dira.**




IDENTIFIKATUTAKO ARRISKUEN JATORRIA

2023an hautemandako arrisku gehienak **mikrobiologikoak** izan dira (**% 56**). Ondoren, **bestelakoak** (**% 11**) hauteman dira, **hala nola gorputz arrotzak, plastiko-hondakinak, gehigarri kopuru altuak...; baimendu gabeko gehigarriak/substantziak** (**% 4**) eta **mikotoxinak** (**% 8**).




Arrisku mikrobiologikoei dagokienez, kasu gehienetan, **mikrobiologiaren presentziaren** ondorio izan dira (**166 jakinarazpen**), eta horien artean, **salmonella** nabarmentzen da (**109 jakinarazpen**). Salmonella hauteman den lehengaien artean, nabarmentzekoak dira **soja-produktuak, koltza-produktuak eta arrain-irinak**.




TARTEAN DAUDEN PRODUKTU-MOTAK

Produktuen arabera, **lehengaiak eragin dituzte** jasotako jakinarazpenen % 70, **etxeko animalientzako pentsuek % 14, loditzeko animalientzako pentsuek % 9 eta gehigarri eta aurre-nahasketek % 7.**




Jakinarazpenetan tartean dauden produktuen bilakabidea, lauhileko bakoitzeko:



TARTEAN DAUDEN LEHENGAIK

Nabarmentzekoak dira, jakinarazpen gehien eragin dituzten lehengaien artean, **soja-produktuak (22)**, **kotza-produktuak (12)**, **ekilore-produktuak (14)**, **arrain-irinak (9)** eta **txakurrentzako mastekagarriak (21)**.



AURREKO URTEAREKIN KONPARAZIOA

2023an 296 jakinarazpen egin dira, eta 2022an 233 egin ziren. Aurreko urtearekin alderatuta, 2023an honako hauek nabarmendu behar dira:

- **Arrisku mikrobiologikoa da oraingoan ere hautemandako lehenengo arrisku-mota (% 60 inguru).**
- **Hautemandako arriskuen ehunekoak antzekoak dira (mikrobiologia, metal astunak, mikotoxinak, etab.) 2022koekin alderatuta.**
- **Mugan egin diren ukapenen kopuruak % 61 egin du gora.**
- **Lehengaien arriskuen hautematea % 26 areagotu da, gehigarri eta aurre-nahasketen arriskuaren hautematea % 59, etxeko animalien pentsuen hautematea % 4 eta hiltegiko animalientzako pentsu konposatuen hautematea % 25.**
- **Jakinarazpenetan jasotako lehengai nagusiak aurreko urtekoaren antzekoak dira: soja- eta koltza-produktuak, arrain-irina eta ekilorez egindako produktuak.**